



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Hiri erresilientziaren eraikitze
prozesua hobetzeko erakunde
publiko, konpainia pribatu
eta pertsonen arteko elkarlan
markoa**

*Patricia Maraña, Marta Iturriza,
Leire Labaka eta Jose Mari Sarriegi*

110-117 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.13>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



UDALBILTZA



Hiri erresilientziaren eraikitze prozesua hobetzeko erakunde publiko, konpainia pribatu eta pertsonen arteko elkarlan markoa

Maraña, Patricia; Iturriza, Marta; Labaka, Leire; Sarriegi, Jose Mari

Univerdad de Navarra, TECNUN Escuela de Ingenieros

pmarana@tecnun.es

Laburpena

Erakunde publikoekin ardura izan da beti gizartearen ongizatea bermatzea. Azken hamarkadetan, konpainia pribatuengan erantzukizun hori ere agertu da. Hala ere, gaur egun gizarte osoa gutxinaka kontzientziazten ari da krisien kudeaketaren ardura osoa erakunde publiko eta konpainia pribatuengan ezin daitekela utzi. Horregatik, erakunde publiko eta konpainia pribatuez gain herritarren partaidetza geroz eta beharrezkoagoa da errealitate berdinarekin ikuspuntu desberdin guztiak partekatu eta lerrokatzeko. Ikerketa honen helburu nagusia hirien erresilientzi eraikitze prozesua hobetzeko erakunde publiko, konpainia pribatu eta pertsonen arteko elkarlan markoa garatzea da. Marko honek, elkarlan mota hauen ezaugarri arrakastatsuak definitu eta deskribatu egingo ditu.

Hitz gakoak: Hiri Erresilientzia, Elkarlan Publiko Pribatu Pertsonala, Krisi Kudeaketa, Eragile anitzeko Elkarlana

Abstract

Public entities have always been in charge of ensuring the welfare of citizens. Moreover, during the last decades, private companies have also developed a sense of responsibility towards improving the well-being of society. However, nowadays, the entire society is increasingly aware of the fact that the entire responsibility of crisis management cannot totally fall on public entities and private companies. To that end, there is an emerging need to involve not only public entities and private companies but also citizens in order to share and align different perspectives about the same reality. The aim of this research is develop a framework for public private people partnerships (4Ps) in city resilience building that defines and describes their successful characteristics.

Keywords: City Resilience, Public Private People Partnership, Crisis Management, Multi-stakeholder Collaboration

1. Sarrera eta motibazioa

Gizartea geroz eta kontzienteagoa da erakunde publikoek eta konpainia pribatuek krisiak ekiditeko, erantzuteko eta suspertzeko egindako esfortzuak ez direla beti nahiko era eraginkorrean kudeatu ahal izateko. Herritarren laguntza krisi kudeaketaren eraginkortasunean inpaktu handia duela erakutsi digute azkenaldian gertatutako hainbat krisiek, esaterako Italian 2016ean gertatutako lurrikarak. Horregatik, krisi kudeaketaren fase guztietan herritarren laguntza ezinbestekoa dela esan genezake (Devex 2017).

Herritarrak dira normalean beraien inguruko komunitateek erresilientziaren inguruko beharrei buruzko ezagutza zehatzena dutenak, krisiei erantzuna ematen lehenak eta haien inpaktua gehien sufritzen dutenak. Informazio guzti hau krisien ekidite, erantzun eta suspertze faseetan eskuragarri izatea oso baliogarria da (Koch et al., 2017). Horregatik da garrantzitsua hirien erresilientzi eraikitze prozesuetan erakunde publikoek eta konpainia pribatuez gain herritarren perspektiba ere kontuan hartzea, krisi kudeaketaren eraginkortasuna handitu dadin.

Norbanako, komunitate, instituzio, negozio eta sistemek edozein motatako krisien haurrean bizirauteko, egokitzeko eta hazteko duten gaitasuna bezala defini genezake hiri erresilientzia (100 Resilient Cities, 2016). Egoera honen aurrean, hirien erresilientzia eraikitze prozesuan eragile garrantzitsu guztiak biltzea ahalbideratzen duten mekanismo eraginkorrak garatzearen beharra agertu da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Jatorrian, krisi kudeaketa gerta litezkeen krisiak identifikatzen, haiek prebenitzeko neurriak ezartzen eta haiei modu eraginkorrean erantzuteko trebetasunak garatzean oinarritzen zen

(Labaka, 2013). Azkenaldian, aurreikusi ezin diren gertaerek, hondamendi naturalek, eraso terroristek edo azpiegitura kritikoen sufritutako istripuek, sorrazten dituzten arrisku eta ahultasunek kezka sortu dute gizartean.

Errealitate berri honi heltzeko, arrisku kudeaketaren ikuspuntua ez da beti nahikoa. Erresilientziaren perspektiba konplementarioa beharrezkoa da aurreikusi ezin daitezkeen krisien ekidite, erantzun eta suspertze faseak egokiak izan daitezen (Risk and Resilience Research Group and Center for Security Studies, 2011).

2.1 Erresilientzia krisi kudeaketan

Erresilientzia hainbat jakintzagai guztiz desberdinetan erabiltzen den kontzeptu zabala da (Manyena, 2006). Krisi kudeaketaren kontextuan erresilientzia sistema, komunitate edo gizartearen krisien aurrean eutsi, krisien inpaktuak xurgatu, egoera berriei egokitu eta ondorioengandik era eraginkorrean suspertzeko eta gizartearen estruktura eta funtzio basikoen lehengoratzeko gaitasuna bezala definienezake (UNISDR, 2009, p.24).

Kontzeptua horren zabala izanik gehienetan erresilientzia aplikatzea ez da erraza izaten (Wardekker et al., 2010). Arazo honi aurre egin nahian, erresilientzi kontzeptu zabala beste kontzeptu zehatzagoetan banatu da, hоек aplikatzea errazagoa izanik. Krisi kudeaketaren inguruan sortutako kontzeptu espezifiko berri hauek (komunitate erresilientzia, erresilientzia ekonomikoa, erresilientzia zibernetikoa, azpiegitura kritikoen erresilientzia...) aplikagarriagoak dira haien lan esparrua txikiagoa baita. Baina, nahiz eta aplikazioa errazagoa izan, kontzeptu espezifikoak erresilientziaren ikuspuntu holistikoa alde batera utzi eta era isolatu batean lantzea ekarri du. Horregatik, azkenaldian ikuspegi zabalagoa duten kontzeptuenganako interesa handitu egin da berriro ere. Ondorioz, hiri erresilientzia bezalako terminoak sortu dira azkenaldian.

2.2 Hiri Erresilientzia

Hiri erresilientzia, lehenago aipatu bezala, norbanako, komunitate, instituzio, negozio eta sistemak edozein motatako krisien aurrean bizirauteko, egokitzeko eta hazteko duten gaitasuna bezala definienezake (100 Resilient Cities, 2016). Osotasuna, zatien batura baino handiagoa da, beraz gaur egun hiri erresilientziaren erroka garrantzitsuenetakoa diziplina anitzeko teoria bat garatzean datza, hiriaren arlo desberdinak (ekonomikoa, soziala, ingurugiroa...) eta eragileak marko berdinean integratu eta koordinatzen dituen teoria bat da (Vedeld, 2016).

Hiri erresilientziaren inguruko erroka bakoitzaren inguruan mekanismo propioak garatu dira eragile garrantzitsuen talde lana sustatzeko. Esaterako, azpiegitura kritikoen erresilientzia hobetzeko elkarlan publiko pribatua sustatu da. Komunitate erresilientziaren arloan aldiz partehartze gobernantzan egin dute apustu (Doyle et al., 2014; Chandra et al., 2015).

2.3 Erakunde publikoak, konpainia pribatuak eta hiritarrak erresilientzi eraikitze prozesuan inplikatzeko beharra

Nahiz eta herritarrak diren erresilientziari dagokionez hiriaren beharrak zehazki zein diren hoberen dakitenak (Koch et al., 2017), askotan ez daukate esperientzia tekniko nahikorik behar hauek inplementatzeko modu egokiena zein den erabakitzeko. Horregatik, askotan, erresilientzia eraikitze prozesuan haien ikuspuntua ez da nahikoa erabaki guztiak beraien esku uzteko, erabaki operatiboak hartzeko zailtasunak izango bailituzte. Horregatik, herritarrek eskainitako jakintza espezifikoaz gain, konpainia pribatuen esperientzia teknikoa ere beharrezkoa da. Hala ere, eragile guztiak erresilientzi eraikuntza prozesuan inplikatzeko beharrezkoa izan arren zaila izaten da maiz norberak bere interes propioak defendatzen baititu eta gehienetan erakunde publikoen, konpainia pribatuen eta herritarren interesak dibergenteak baitira.

Erakunde publikoen helburu nagusia gizartearen ongizatea defendatzea izan da, konpainia pribatuen helburu nagusia aldiz errentagarri izatea. Hala ere, azkenaldian konpainia pribatuetan gizartearen ongizatea defendatzeko erantzukizunak garatzen hasi dira. Horregatik, konpainia pribatuek erantzukizun sozial korporatibo jarduerak garatzen hasi dira, gizartearen ongizatean inpaktu handia dutenak.

Bestalde, erakunde publikoak beti izan dira gizartearen iritziaren bozeramaile, baino azken urteetan komunikazio falta eta gaizki ulertuak direla medio, erakunde publikoen eta herritarren ikuspuntuak desberdinak dira. Horregatik, erakunde publikoek parte hartze prozesuak ari dira garatzen, gizartearekin zuten erlazioa indarberritzeko eta hiritarren ikuspuntu eta iradokizunak erresilientzi eraikitze prozesuan integratu ahal izateko.

Egoera hauek, nahiz eta desberdintasunak eduki, erakunde publikoen, konpainia pribatuen eta herritarren arteko elkarlana posible egiteaz ez ezik haientzat interesgarria dela erakusten dute. Honek, erresilientzia eraikitze prozesuan parte hartzeko borondatea sustatzen du eta elkarlan eskema berriak garatzearen beharra ere ekarri dute (Boyd eta Juhola, 2014).

2.4 Hiri erresilientziaren eraikuntzan elkarlan publiko pribatu pertsonal arrakastatsua garatzeko beharra

Eragile desberdinak koordinatzeko beharra 100 Resilient Cities erakundeko Michael Berkowitz-ek azpimarratu zuen 2016. urtean honako hitz hauekin: “Erresilientziaren historia, elkarlanarena da gobernu maila guztien, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren elkarlana honako helburu berdin hau lortzeko: katastrofe arriskuak gutxitu eta aldi berean hiritarren eguneroko bizitzak hobetu” (Berkowitz, 2016). Gainera, krisiak era efektiboan kudeatzeko elkarlana ezinbestekoa da eta ondorioz, elkarlan efektiboen garapenean dago orain arlo honen erronkarik handiena (Kapucu, 2012).

Horregatik, elkarlan publiko pribatu pertsonala bezalako harraminta efektiboak garatzeko behar handia dago, hau da, hirien gobernu maila guztien gobernantza erraztu eta erresilientzia handitzen laguntzen duten harraminten beharra dago (Vedeld et al., 2016).

Ikerketa honen arloan elkarlana, helburu bateragarriak, horiek elkarrekin lortzeko ahaleginak egiteko borondatea eta haien arteko interdependentzien jabe diren erakunde independenteen arteko erlazio estrategikoa da. Elkarlanaren bitartez helburu kolektiboak esfortzu indibidualaren bitartez baino errazago lortzea posible dela guztiz onartuta dago (Gagnon et al., 2016). Elkarlan arrakastatsua proposatutako helburua era eraginkorrean lortzen duena da parte hartzaile guztien ekarpenaz baliotuz (Mohr eta Spekman, 1996; Gagnon et al., 2016).

3. Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia hirien erresilientzia prozesua hobetzeko erakunde publiko, konpainia pribatu eta pertsonen arteko elkarlan markoa garatzea da. Marko honek, elkarlan mota hauen ezaugarri arrakastatsua identifikatu, definitu eta deskribatu egingo ditu. Ezaugarri arrakastatsua hauek identifikatzeko gaiaren inguruko literatur berrikuspen bat egin da Scopus datu-basean gako-hitz sekuentzia batzuk erabiliz. Literatur berrikuspen honen diseinuak bi urrats nagusi ditu. Lehenik, ikerketaren helburua eta ikerketa-galderak garatu dira. Ondoren, bilaketa prozesua diseinatu inklusio eta eskusio irizpideak definitu dira eta ezaugarri arrakastatsua identifikatzeko jarraitutako prozesua azaldu da.

3.1 Ikerketaren helburuak, esparrua eta galderak

Ikerketa honen helburua hirien erresilientzi eraikitze prozesuetan erabilitako elkarlan publiko pribatu personal arrakastatsuen ezaugarriak identifikatu, definitu eta deskribatzea da. Hori kontuan izanik, honako ikerketa galdera nagusiak definitu dira:

- G1: Zeintzuk dira hiri erresilientzia eraikitze prozesuetako elkarlan publiko pribatu pertsonal arrakastatsuen ezaugarriak?

Galdera hau horren orokorra izanik beste hiru galdera zehatzago garatu dira hauek errazago erantzuteko:

- G2: Zeintzuk dira edozein elkarlan arrakastatsuen ezaugarriak?
- G3: Zeintzuk dira hiri erresilientzi eraikitze prozesuan elkarlan arrakastatsuen ezaugarriak?
- G4: Zeintzuk dira elkarlan publiko pribatu pertsonal arrakastatsuen ezaugarriak?

3.2 Bilaketa prozesua

Ikerketa honen galdera nagusiari erantzun bat eman ahal izateko, beste hiru galdera zehatzago proposatu dira. Galdera zehatz horiek era desberdinetan erantzun dira. Bigarren galdera erantzuteko (G2), Mohr eta Spekman-en “Characteristics of partnership success: partnership attributes, communication behavior, and conflict resolution techniques” (Mohr eta Spekman, 1996) artikuluko zientifiko esanguratsuan identifikatutako ezaugarrietan oinarritu gara.

Hirugarren eta laugarren galderak (G3 eta G4) erantzuteko bi literatur berrikuspen sistematiko gauzatu dira Scopus datu-base elektronikoa erabiliz. Scopus erabiltzearen arrazoi nagusia datu-base honek indexaturik dauden zientzi-aldizkari kopururik handiena jasotzen duela izan da (Guz eta Rushchitsky, 2009; Falagas et al., 2008).

Datu basean hirugarren eta laugarren galderen erantzuna osatzeko beharrezko artikulak identifikatzeko ondorengo bi kontsultak erabili dira:

- G3: Zeintzuk dira hiri erresilientzi eraikitze prozesuetako elkarlan arrakastatsuen ezaugarriak?
 - “city resilience” OR “community resilience” OR “urban resilience” AND partnership OR collaboration
 - Emaita: 75 artikulua
- G4: Zeintzuk dira elkarlan publiko pribatu pertsonal arrakastatsuen ezaugarriak?
 - (“public-private partnership” OR “public-private collaboration” AND communit*) OR “public-private people partnership”) AND (“characteristics” OR “properties” OR “dimensions”)
 - Emaita: 101 artikulua

Ikerketa honen alorrean identifikatutako artikuluen erabilgarritasuna bermatzeko inklusio eta eskusio irizpide batzuk erabili dira publikazio motaren eta artikuluen edukien arabera. Publikazio motari dagokionez, ikerketa honen kalitate maila bermatzeko, aldizkari zientifikoetan indexatutako artikulak bakarrik hartu dira kontuan. Edukiari dagokionez, laburpena irakurri ondoren elkarlan mota desberdinei buruzko ezaugarri arrakastatsuen buruzko informazioa ematen ez zuten artikulak ez dira erabili.

Ikerketa honetarako artikulua esanguratsuenak aukeratu ostean artikuluko horiek xehetasun gehiagorekin irakurri eta aztertu dira ezaugarri arrakastatsuenak identifikatu eta hirien erresilientzi eraikitze prozesua hobetzeko elkarlan publiko pribatu pertsonal markoa garatzeko. Literatur berrikusketa aurrera joan ala markoaren eskema, ezaugarrien izenak eta definizioak osatzen joan dira.

4. Ikerketaren muina eta ondorioak

Sekzio honetan, literatur berrikusketa osoa burutu ostean eta artikulua esanguratsuenak xehetasunez aztertu ostean identifikatutako hirien erresilientzi eraikitze prozesua hobetzeko elkarlan publiko pribatu pertsonal arrakastatsuenak garatzeko hamasei ezaugarri aipatu, definitu eta deskribatu dira.

4.1 Konpromezua

Konpromezua, partaideen interes propioak alde batera utzi eta haien arteko erlazioa zaintzeko esfortzua eta borondatea bezala defini daiteke. Partaide konprometituak fokua epe luzeko helburuetan jartzeko gai dira, epe ertain eta laburreko oztopoak eta arazoak gaindituz.

Hiri erresilientziari dagokionez, ezinbestekoa da eragile nagusiak ekidite, erantzun eta suspertze faseei buruzko erabaki prozesuetan parte hartzeko konpromezua sustatzea (Chandra et al., 2013; Boyd eta Juhola, 2014). Garrantzitsua da ere elkarlaneko partaide guztiei baliotsu eta ezinbestekoak direla sentiaraztea, bestela parte hartzeko errezeloa izango dute (Doyle et al., 2014).

4.2 Koordinazioa

Koordinazioa, elkarlanaren mugak zehazteko eta partaide bakoitzaren betebeharrak zehazteko beharra bezala defini daiteke. Horretarako partaideek mekanismo eta prozedurak garatu behar dituzte elkarlan efektiboa sustatu ahal izateko.

Elkarlanaren mugen definizioa, gatazken murrizketa, sareen eta lankidetzaren konexioen garapena eta eragileen arteko koordinazio-jardueren gauzapena dira partaideen arteko koordinazioa sustatzen duten jarduerak (Doyle et al., 2014).

4.3 Interdependentzia

Interdependentzia, partaide batek bere helburu propioak eta helburu kolektiboak era eraginkorrangoan lortu ahal izateko beste partaideen lana beharrezkoa dela ulertzearen gaitasuna bezala defini daiteke.

Elkarlan publiko pribatu pertsonal arrakastatsuen gakoa norberaren onurak beste partaideen menpe daudela ulertu eta interes indibidualak interes kolektiboekin lerrotatzean datza (Chandra et al, 2013; O'Sullivan et al, 2015). Aurretiko erronkei buruzko ikuspegi komun bat garatzea, ikuspegi hori kontuan harturik definitutako jardueren plangintza eta jarduera horiek aurrera eramateko lan talde egokiena bilatzea funtsezko elementuak dira (Doyle et al., 2014).

4.4 Konfiantza

Konfiantza, partaide bat fidagarria izan eta ondorioz bere betebeharrak arduratuko den sinismen bezala defini daiteke. Sinesmen hau da lan kooperatiboa eta helburu komunak gauzatzen dituen.

Konfiantza bezalako juridikoki lotesleak ez diren ezaugarriak dira elkarlaneko partaideen erlazioaren kalitatean inpaktu handiena dutenak (Stewart et al, 2009). Partaideen arteko konfiantza ezinbestekoa da erresilientzia eraikitzeo. Beraien artean konfiantza badago, litekeena da elkarlana sektore eta hierarkia mugak gainditzeko gai izatea.

4.5 Informazioaren Kalitatea

Informazioaren kalitatearekin, informazioaren egokitasuna, zehaztasuna eta garrantzia bezala defini daiteke. Honek partaideen arteko komunikazioa errazten du eta erabakitze prozesuak hobetzen laguntzen du.

Informazioaren kalitatea handia denean partaideen arteko komunikazioa errazten da eta aldi berean, gizarteak ikusten dituen hiri erresilientzia handitzeko beharrezkoak diren baliabideen identifikazioa asko errazten du (Brogt et al., 2015). Horregatik geroz eta kalitate handiagoko informazioa tartekatu orduan eta erabaki hobeak eta ondorioz geroz eta krisi ekidite, erantzun eta suspertze fase eraginkorrak lortuko ditugu.

4.6 Informazioaren partekaketa

Informazioaren partekaketa, beste partaideei zereginak era efektiboagoan gauzatzeko, zenbateraino komunikatzen zaien adierazten digun kontzeptua bezala define daiteke.

Informazio partekaketak ekintza bateratuak hobetzen ditu. Honek elkarlaneko partaideek krisiak ekiditen, erantzuten eta suspertzen dituzten gaitasunak indartzen ditu eta ondorioz krisi garaian haien lanen eraginkortasuna handitzen du (Kapucu, 2012). Izan ere, informazioa partekatzea da elkarlan arrakastatsuen gakoetako bat (Fitzpatrick eta Molloy, 2014), ahalegin bikoizketa saihesten laguntzen duelako.

4.7 Parte hartzea

Parte hartzeak, eragile guztiak, elkarlanaren plangintzan, helburu ezarketan, erantzukizun banaketan eta zeregin buruketan zenbateraino murgiltzen diren adierazten du.

Hiri erresilientzia gaiei erantzun kolektibo bat emateak, autosufizientzia sustatzen du, oso garrantzitsua baita herritarrengandik erresilientziaren inguruko gaien inguruko informazio baliagarria lortzea. Hiri erresilientziaren inguruko jardueretan eragile guztiek parte-hartzea ezinbestekoa izan da, azkenaldiko erronka handiena motibazioa eta parte-hartze aktiboa denboran zehar mantentzea izan delarik (O'Sullivan et al., 2015).

4.8 Arazo konponketa konstruktiboa

Arazo konponketa konstruktiboa, partaideek haien arteko arazoak, eragile guztien onespina jasoz eta haien interesak kontuan hartuz era efektiboan konpontzeko gaitasuna bezala defini daiteke.

Arazo konponketa konstruktiboa beharrezkoa da eragile talde desberdinen arteko interes dibergenteak lerrotatzean sortzen diren arazoak konpontzeko. Hiri erresilientziak elkarlan publiko pribatu pertsonalak eragile guztien arteko etengabeko elkarrizketa sustatu behar du

elkarlana arriskuan jarri dezaketen arazoak era kolaboratzaile batean konpondu ahal izateko (Bava et al, 2010; O'Sullivan et al, 2015).

4.9 Integrazioa

Integrazioak, elkarlanak helburu handiagoak eta era efektiboagoan lortzeko, antzeko helburua duten beste erakunde edo elkarlanekin zenbaterainoko interkonexioa dagoen esan nahi du.

Hiri erresilientziaren inguruan eginiko jarduerak, interes berdinak dituzten erakunde edo konpainiek egiten dituzten ahaleginekin bateratzea, esfortzu duplikazioak sahiestea eta hiriaren erresilientzi maila era eraginkorragoan handitzea laguntzen du. Hiriko eragileen artean sortutako kolaborazio sareek erresilientzia bere osotasun guztian handitzen laguntzen du (Doyle et al., 2014).

4.10 Malgutasuna

Malgutasuna, egoera aldaketa, erronka berri eta bat-bateko krisien aurrean elkarlanaren moldagarritasun gaitasuna bezala defini daiteke.

Elkarlanaren egitura eta erantzukizunak ondo definituak izatea, krisi batean ekidite eta erantzun faseetan erabakigarria izan daiteke. Hala ere, elementu horietan malgutasun maila bat onartzea beharrezkoa da, eragileen arteko erlazioa egoera desberdinetara egokitzeko gai izan dadin (Stewart et al, 2009; Doyle et al 2014). Horregatik, elkarlana eraldatu ahal izateko aukera izan behar du egoera desberdinetan erantzun bat emateko gai izan dadin.

4.11 Informazioaren irisgarritasuna

Informazioaren irisgarritasuna, informazioa eskuragarri egotearen azkartasuna eta partaideek informazioa erabiltzeko duten erreztasuna bezala defini daiteke.

Komunikazio protokolo garbiak, informazio jakinarazpen puntualak edo informazioa eguneratua izatea ezinbestekoak dira elkarlaneko partaide guztiak informazio berdina izan dezaten (Adams, 2016). Informazio berbera eskura izateak aukeratze prozesua hobetzea dakar (Tobin et al., 2014)

4.12 Informazioaren gardentasuna

Informazioaren gardentasunarekin, elkarlaneko partaideen artean zereginak era efektiboagoan burutzeko, informazio sentikor eta kritikoa zenbateraino partekatzen den adierazten digu.

Informazioaren gardentasunak konpromezua sustatzen du eta eragileen artean ikuspuntu komun bat garatzen laguntzen du (Gagnon et al., 2016).

4.13 Hausnartzeko gaitasuna

Hausnartzeko gaitasuna, elkarlanak iraganeko esperientzietatik ikasi eta esperientzia horiek etorkizunean aukeraketa hobeak egiteko duten gaitasuna bezala defini daiteke.

Iraganeko gertaeretatik eta arazoetatik ateratako esperientzia kolektiboak identifikatu eta forma emateak, epe luzean eragileen arteko elkarlana bermatzen du (Pfefferbaum et al., 2013). Iraganetik ikasitakoa ez genuke baztertuta utzi behar, hiriaren erresilientzi eraikitze prozesuan kontuan hartu daitezten landu beharko lirake (Fitzpatrick eta Molloy, 2014).

4.14 Aniztasuna

Aniztasuna, jabego sentimendu bat sortzearen, eragile talde garrantzitsu guztien ikuspuntuak ordezkatzeko egoteko gaitasuna bezala defini daiteke.

Elkarlanean aritzen diren partaide guztiek informazioa eskuragarri izateko aukera eta parte hartzeko berdintasuna ziurtatzea oso garrantzitsua da hiri erresilientzia eraikitze erabakien zilegitasuna mantentzeko eta elkarlan publiko pribatu pertsonal arrakastatsuak garatzeko (Akamani et al., 2015).

4.15 Erabiltzaile adiskidetasuna

Erabiltzaileen adiskidetasunarekin, elkarlanean haien artean partekatutako informazioa eragile talde guztientzako zeinen ulergarria eta erabilgarria den adierazten digu.

Hizkuntza teknikoaren erabilera ahal den heinean ekiditea gomendagarria da ahalik eta partaide gehienek elkarlanean partekatzen den informazioa ulertu eta elkarlanerako funtzionamendu egokia ziurtatzeko (Addison et al., 2015).

4.16 Ikuspuntu lerroketa

Ikuspuntu lerrokaketa, eragile talde guztien ikuspuntuak eta interes indibidualak lerrokatu eta helburu kolektibo bat ezartzeko gaitasuna bezala defini genezake.

Partaideen arteko interes indibidualen interesak lerrokatu ez egoteak elkarlan arrakastatsuen funtzionamendua oztopatu dezakete. Estrategia komun bat garatzeko orduan eragile publiko pribatu eta pertsonalak parte hartu beharko lukete gizartearen behar guztiak identifikatu eta etorkizunean jorratuko diren jarduerak definitzeko (Addison et al., 2015).

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Akademikoen eta profesionalen artean geroz eta kezkatuagoak daude, erakunde publikoak eta konpainia pribatuek aparte, hiri erresilientzia eraikitze prozesuan gizartea inplikatu eta haien ikuspegiak kontuan hartzeko beharrezkoak. Egoera honen aurrean eta ikerketa honen bitartez, hirien erresilientzia eraikitze prozesua hobetzeko erakunde publiko, konpainia pribatu eta pertsonen arteko elkarlan arrakastatsuen ezaugarriak identifikatu ditugu. Ezaugarri hauek era egokian garatuz gero eragile publiko pribatu pertsonalen arteko elkarlana hobetu eta hiri erresilientzia handitzea ahalbidetzen du.

Nahiz eta artikulu honetan ezaugarri bakoitza indibidualki definitu eta deskribatu ditugun, horrek ez du esan nahi haien artean erlaziorik ez dagoenik. Literatur berrikusketan egiten ari ginen bitartean ezaugarri horietako batzuen artean lotura estuak daudela konturatu ginen. Beraz, lotura horien definitzea da ikerketa honek etorkizun laburrean duen hurrengo erronka. Lotura horien identifikazioak ezaugarrien garapenak inplementatzeko garaian dauden lehetasunak ezartzen lagunduko digu, elkarlan mota hauek era efektiboenean garatu ahal izateko.

6. Erreferentziak

- 100 Resilient Cities (2016), http://www.100resilientcities.org/resilience#/-/_/, 2016, (Last accessed December 2016).
- Adams, L. M. (2016). Promoting Disaster Resilience Through Use of Interdisciplinary Teams: A Program Evaluation of the Integrated Care Team Approach. *World Medical & Health Policy*, 8(1), 8-26.
- Addison, C. C., Campbell Jenkins, B. W., Odom, D., Fortenberry, M., Wilson, G., Young, L., & Antoine-LaVigne, D. (2015). Building collaborative health promotion partnerships: The Jackson Heart Study. *International journal of environmental research and public health*, 13(1), 25.
- Akamani, K., Wilson, P. I., & Hall, T. E. (2015). Barriers to collaborative forest management and implications for building the resilience of forest-dependent communities in the Ashanti region of Ghana. *Journal of environmental management*, 151, 11-21.
- Bava, S., Coffey, E. P., Weingarten, K., & Becker, C. (2010). Lessons in Collaboration, Four Years Post-Katrina. *Family process*, 49(4), 543-558.
- Berkowitz, M. (2016). What is Resilience and Why Does it Matter Now More Than Ever?. Available: http://www.100resilientcities.org/blog/entry/what-is-resilience-and-why-does-it-matter-now-more-than-ever#/-/_/. Last accessed 13th Dec 2016.
- Brogt, E., Grimshaw, M., & Baird, N. (2015). Clergy views on their role in city resilience: lessons from the Canterbury earthquakes. *Kōtuitui: New Zealand Journal of Social Sciences Online*, 10(2), 83-90.
- Boyd, E., & Juhola, S. (2014). Adaptive climate change governance for urban resilience. *Urban Studies*, 0042098014527483.
- Chandra, A., Williams, M., Plough, A., Stayton, A., Wells, K. B., Horta, M., & Tang, J. (2013). Getting actionable about community resilience: the Los Angeles county community disaster resilience project. *American journal of public health*, 103(7), 1181-1189.
- Devex. (2017). New solidarity initiative will provide volunteering opportunities across Europe. Retrieved February 02, 2017, from <https://www.devex.com/news/new-solidarity-initiative-will-provide-volunteering-opportunities-across-europe-89357>

- Doyle, E. E., Becker, J., Neely, D. P., Johnston, D. M., & Pepperell, B. (2014). Knowledge transfer between communities, practitioners, and researchers: A case study for community resilience in Wellington, New Zealand. *Australasian Journal of Disaster and Trauma Studies*, 19(2).
- Falagas, M. E., Pitsouni, E. I., Malietzis, G. A., & Pappas, G. (2008). Comparison of PubMed, Scopus, web of science, and Google scholar: strengths and weaknesses. *The FASEB journal*, 22(2), 338-342.
- Fitzpatrick, T., & Molloy, J. (2014). The role of NGOs in building sustainable community resilience. *International Journal of Disaster Resilience in the Built Environment*, 5(3), 292-304.
- Gagnon, E., O'Sullivan, T., Lane, D. E., & Paré, N. (2016). Exploring Partnership Functioning within a Community-Based Participatory Intervention to Improve Disaster Resilience. *Journal of Higher Education Outreach and Engagement*, 20(2), 25-52.
- Guz, A. N., & Rushchitsky, J. J. (2009). Scopus: A system for the evaluation of scientific journals. *International Applied Mechanics*, 45(4), 351.
- Kapucu, N. (2012). Disaster resilience and adaptive capacity in Central Florida, US, and in Eastern Marmara Region, Turkey. *Journal of Comparative Policy Analysis: Research and Practice*, 14(3), 202-216.
- Koch, H., Franco, Z. E., O'Sullivan, T., DeFino, M. C., & Ahmed, S. (2017). Community views of the federal emergency management agency's "whole community" strategy in a complex US City: Re-envisioning societal resilience. *Technological Forecasting and Social Change*. In press.
- Labaka, L. (2013) Resilience Framework for Critical Infrastructures. University of Navarra, San Sebastian.
- Manyena, S.B. (2006) The concept of resilience revisited, *Disasters*, Vol. 30, No. 4, pp. 434-450.
- Mohr, J., & Spekman, R. (1994). Characteristics of partnership success: partnership attributes, communication behavior, and conflict resolution techniques. *Strategic management journal*, 15(2), 135-152.
- O'Sullivan, T. L., Corneil, W., Kuziemy, C. E., & Toal-Sullivan, D. (2015). Use of the structured interview matrix to enhance community resilience through collaboration and inclusive engagement. *Systems Research and Behavioral Science*, 32(6), 616-628.
- Risk and Resilience Research Group—Center for Security Studies. Resilience and risk management in critical infrastructure protection policy: exploring the relationship and comparing its use; 2011.
- Stewart, G. T., Kolluru, R. & Smith, M. 2009. Leveraging public-private partnerships to improve community resilience in times of disaster. *International Journal of Physical Distribution & Logistics Management*, 39(5), 343-364.
- The United Nations Office for Disaster Risk Reduction (UNISDR). 2009. "2009 UNISDR Terminology on Disaster Risk Reduction." Geneva. <http://www.unisdr.org/we/inform/terminology>. Accessed April 13, 2015.
- Toubin, M., Laganier, R., Diab, Y., & Serre, D. (2014). Improving the conditions for urban resilience through collaborative learning of Parisian urban services. *Journal of Urban Planning and Development*, 141(4), 05014021.
- Vedeld, T., Coly, A., Ndour, N. M., & Hellevik, S. (2016). Climate adaptation at what scale? Multi-level governance, resilience, and coproduction in Saint Louis, Senegal. *Natural Hazards*, 82(2), 173-199.
- Wardekker, J. A., de Jong, A., Knoop, J. M., & van der Sluijs, J. P. (2010). Operationalising a resilience approach to adapting an urban delta to uncertain climate changes. *Technological Forecasting and Social Change*, 77(6), 987-998.